



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ZUZENBIDE
FAKULTATEA
FACULTAD
DE DERECHO

GOGOETAGUNEA

Hausnarketa partekatua, berrikuntza soziala eta pentsamendu kritikoa eraldaketa pertsonal eta sozialerako tresna gisa

GrAL, MAL zein eremu klinikoko derrigorrezko practicumaren garapenerako programari atxikitako prestakuntza-jarduera

IKASLEAREN GIDA

- Zuzenbideko Gradua
- Kriminologiako Gradua
- Zuzenbideko eta EAZko Gradu Bikoitza
- Abokatutza Masterra

www.ehu.eus



■ GOGOETAGUNEA ■

Hausnarketa partekatua, berrikuntza soziala eta pentsamendu kritikoa eraldaketa pertsonal eta sozialerako tresna gisa

GrAL, MAL zein eremu klinikoko derrigorrezko practicumaren garapenerako programari atxikitako prestakuntza-jarduera.

■ IKASLEAREN GIDA ■

Zuzenbideko Gradua

Kriminologiako Gradua

Zuzenbideko eta EAZko Gradu Bikoitza


Abokatutza Masterra

■ SARRERA ■

Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoak (JSKJ) aukera ematen die Zuzenbide Fakultateko ikasleei **gizarte eraldatzeko ekimenetan parte hartzeko**. Horretarako, **ikaskuntza-komunitate bizi batean** garatzen diren hainbat jarduera egiten dira. Komunitate hori **justizia sozialaren** defentsan diharduten ikasleek, irakasleek, eta fakultateko langileek ez ezik, hainbat eremutako profesionalak eta gizarte-esparruko hainbat elkarte eta erakundek ere osatzen dute.

JSKJak proposatzen dituenen artean, hauxe da, seguruenez, **inpaktu handieneko esperientzia**: Gradu Amaierako Lanak, Master Amaierako Lanak edo Praktiak **metodologia kliniko baliatuz eta orientazio eraldatzaile baten bidez** egiteko aukera, beti ere, **kasu errealei aplikatuta**; batzuetan, kasu biziak dira, gainera. Horretarako, **ingurune motibatzaile, estimulatzaile eta aberasgarria** eskaintzen da, Zuzenbidea eta Kriminologia **konpromiso pertsonal eta sozialetik** lantzen laguntzen duena, **gizarte-ekintza eta metodologia kliniko** uztartuta.

Horretarako, **JSKJak Mintegi Iraunkor baten testuinguruan eskaintzen diren jardueretan integratzen ditu ikasleak**. Mintegi horrek, besteak beste, **elkarte-mugimenduko profesionalekin eta pertsonekin**, haien kezkekin eta lan egiten duten kasuekin **harreman zuzena izateko aukera ematen die**. Horrek nor bere **balio pertsonalak** berriz aztertzea eta **lan-hipotesi berriak planteatzea** ahalbidetzen du. Era berean, ikasleei **prestakuntza osagarria** eta hainbat **proiektu** motatan parte hartzeko aukera eskaintzen zaie. Horri esker, **gizarte-berrikuntzarako tresnak** eskura ditzakete.



GOGOETAGUNEAren jarduera JSKJaren jarduera-esparru zabal horretan txertatzen da, ikasleen parte-hartzea dinamizatzen saiatzeko eta esperientzia klinikoaren barruan haien bizipenak garatu, partekatu eta kontrastatu ahal izan ditzaten errazteko.

■ TESTUINGURUA ■

JSKJaren PROIEKTUAREN OINARRIZKO HATSARREAK

1.	Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoa (JSKJ) Zuzenbidearen eta Kriminologiaren teoriari eta praktikari buruzko hausnarketa egiteko gune bat da, justizia sozialaren alde lan egitea bilatzen duena.
2.	JSKJan justizia sozialaren alde lan egiteak pentsamendu kritikoa eta konpromiso soziala garatzea eskatzen du, eta horrek, besteak beste, diziplina juridikoeak eta kriminologikoeak statu quo-aren erreprodukzioan duten eginkizuna zalantzan jartzea dakar; baita Zuzenbide Fakultatean zuzenbidea zein Kriminologia transmititzeko erabiltzen diren sistema pedagogikoeak berrikustea ere. Horrek guztiak, irakasteko eta ikasteko moduen eraldatzea eragiten du ezinbestean.
3.	Jakintza juridiko eta kriminologikoen berrikusketa diskriminazio edota indarkeria estrukturalen kokatzen diren bidegabekeria sozialeko kasu zehatzak aztertuz egiten da JSKJan.
4.	JSKJn tratatzen diren kasuak hurbileko gizarte-inguruetik datoz, eta diskriminazioaren aurka lan egiten duten elkarte, abokatu-bulego eta erakundeek aurkezten dituzte.
5.	«Gizarte-eragile» horien parte hartzea funtsezkoa da JSKJaren jardunean, Unibertsitatea gizarte-beharretara hurbiltzen laguntzen dutelako, edo, bestela esanda, ezagutza gizarteratzen laguntzen dutelako. Gainera, bere jardunaren bidez, unibertsitateak gizarte-eraldaketarako duen funtzio soziala betetzen laguntzen du JSKJak.
6.	JSKJan inplikaturako pertsonen ikaskuntza-komunitate bat osatzen dute, lankidetzan eta ikaskuntza-zerbitzuan oinarritutako metodologia espezifiko bat praktikatzeko duena
7.	Ikasketa-zerbitzuaren emaitza ikasleek aurkeztutako GrAL eta MALetan islatzen da, bai eta haien prestakuntza osatzeko beharrezkoak diren curriculum-praktiketan ere. Izan ere, nahitaezko graduko praktika horiek JSKJaren bidez egin daitezke.
8.	GrAL eta MALak egitean baliatzen den ikaskuntza-zerbitzuaren metodologiaren funtsezko printzipio bat da ikasleek zuzeneko harremana izatea diskriminazioaren biktima diren pertsona zein taldeekin, eta ahalegina egiten da kasuaren azterketarako lehen ezagutza-iturria ukitutako pertsonaren kontakizuna izan dadin.
9.	GrALa zein MALa JSKJaren bidez egiteak trebetasun espezifikoak (elkarrizketatzen jakitea, gertakariak aurkitzea, enpatia garatzea, entzuteko gaitasuna, etab.) eta gaitasun konplexuak eskuratzea dakar, planteatutako benetako arazoei buruz modu kritikoan hausnartzea ahalbidetuko dutenak (hala nola kasuen konplexutasunari buruzko kontzientzia hartzea eta diskriminazioaren aurkako estrategiak diseinatzea).
10.	GrAL eta MAL klinikoan azken emaitza Zuzenbideak eta Kriminologiak beren bertsio hegemonikoan dituzten mugak aurkitzea dakar, eta, horrekin batera, gizarte-eragileei eta berdintasunarekin eta gizarte-justiziarekin kezkatuta dauden erakunde eta organismoen eraldatze- eta aldatze-proposamenak eskaintzea.


■ EZAUGARRIAK ■

ZERTAN DATZAN GOGOETAGUNEA

GOGOETAGUNEA JSKJak eskaintzen duen prestakuntza ibilbidearen **jarduera osagarria** da. Funtsean, **ikasturtean zehar programatutako 6-8 mintegik osatzen dute**. Mintegi horietan ikasleek **Zuzenbideak eta Kriminologiak** dituzten printzipioei buruz hausnartzeko, **eztabaidatzeko eta horiek zalantzan jartzeko aukera dute, hutsuneak eta ageriko kontraesanak** erakusten dituzten egoera eta kasu errealei aurre eginez.

Mintegi hauetan **hainbat dinamika** erabiliko dira, beti ere, mintegi bakoitzaren helburuaren arabera. Baina, oro har, lan intelektuala zein landa-lana Klinika Juridikoaren hiru ardatz nagusiren inguruan garatuko da. Horren bidez, kasu konplexuei ikuspegi klinikotik nola heldu erakutsi ikas dezaten lagundu nahi zaie:

- Alde batetik, bilatzen da **ikasleek kontzientzia hartzea, edozein proposamen egiteko, eta, bereziki, proposamen eraldatzaileak egiteko**, funtsezkoa dela egoeraren **analisi** sakona egitea, eta aldeko faktoreen eta dauden arriskuen azterketa sendoan oinarritzea. Helburu hori lortzeko, **JSKJaren Mintegi Iraunkorrean** aztergai hartuko diren kasuak eta horien inguruan egingo diren gogoetak.
- Beste alde batetik, ikasleak ohartarazi nahi dira oso garrantzitsua dela abiapuntu diren hipotesi eta ebidentzien sendotasuna **egiaztatzea**, baita gure ekimenak baldintzatu ditzaketen aurre-iritzia ere **berrikustea**.
- Azkenik, konfiantza espazio bat sortu nahi da, ideien eta ikuspuntuen **kontrastea** bideratzeko, eta egoera konplexuei aurre egitean ezinbestean sortzen diren dilemei buruzko **eztabaidak** egiteko.



Askotariko erronka intelektual eta kognitiboen bidez, ikasleek **hausnarketa komunitario dinamikoa eta irekietan murgilduko dira**, Klinikako irakasleekin, fakultateko bestelako langileekin, hainbat arlotako profesionalekin eta elkarteetako ordezkariekin batera.

Helburua da inguru estimulatzailea eskaintzea, parte-hartzaileak gai izan daitezen gai, hurbilpen eta ikuspuntu berritzaileekiko interesa aktibatuz. Horren bidez, gizartean aukera eta tratu-berdintasunaren inguruan sortu diren eskakizunen aurrean **konpromiso-jarrera garatzea** espero da.

Ikasleentzat normalean ezezagunak diren errealitateen **ikerketaren** eta **ulermen** sakonaren bidez, konplexutasuna ulertzen laguntzea bilatzen da. Horrela, **proposamenak egitera bultzatu** nahi dira, eta, gainerako parte-hartzaileekin **kontrastea egin** ondoren, hasierako pentsamendu-esparruarekiko nolabaiteko aldaketa dakarren duen ondorio pertsonaletara heltzea bilatzen da.

Analisi, sakontze, proposamen eta kontraste prozesu horien bidez, justizia sozialari eragiten dioten gaietan **ikasleen sentiberatasuna suspertzea** espero da, eta **inguruko errealitatearekiko kontzientzia kritikoa** garatuz, **justizia sozialaren aldeko lidergoa** gauzatzeko beharrezkoak diren segurtasuna eta bestelako tresnak eskuratzea bilatzen da. Lidergo posizioa bere ingurune hurbilean garatzea espero da, bederen, JSKJan egingo duten egonaldian landu dituzten kasuei dagokienez.

Laburbilduz, esperientzia honetan **konfiantzazko «testuinguru segurua»** eskaini nahi da, modu horretara, eta **laguntza tresnak emanez (emozionalak, sozialak, teknikoak)** eta **guztien ikuspegiaren aitortza sustatuz**, gai delikatu eta eztabaidagarriei hainbat hurbilpen eta ikuspegitatik heltzeko gai izan daitezen, betiere jasotako kontraste aberasgarria eta positiboa bermatuz.



■ HELBURU OROKORRAK ■

ZER LORTU NAHI DEN

GOGOETAGUNEAREN helburua da Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoaren proiektuan parte hartzen duten **pertsonen garapen prozesua sendotzea, eremu pertsonal, sozial eta akademikoan**. Bereziki, **lagundu nahi du plano kontzientera eramaten**, abiapuntu ditugun balio, printzipio eta sinesteak, hala nola, **prozesu eraldatzaileen testuinguruan**, zalantzan jar litezkeen balio, printzipio eta sinesteak

Bestela esanda, ingurune bat sortu nahi da, justizia sozialari buruzko hausnarketarekin lotura duten gaiak **hitzez adierazi, transmititu eta kontzeptualizatzen laguntzeko**. Horretarako norberaren ikuspegia JSKJan parte hartzen duten gainerako pertsonekin partekatuko da, hori guztia bertan landuko diren kasuen errealitatearekin kontrastatuz.

Hori lortzeko, **hainbat jarduera bideratuko dira**, Klinikako ikaskuntza-komunitateak eta bereziki ikasleek hausnarketa-prozesuetan parte hartu dezaten, **modu dinamikoan, bizipen eta esperientzia bidez**. Hauxe izango da azken helburua: **JSKJaren jarduera nagusiei euskarri ematen dioten oinarriak sendotzea**.

Lortu nahi den hausnarketa errazteko, GOGOETAGUNEAN **hainbat dinamika** aurreikusten dira aukera ematen dutenak **errealitate jakin bat aztertzeko**, eta hala badagokio, errealitate horiek berrikusteko, eta **jarrerak kontrastatu, eztabaidatu, argudio zein kontra-argudioak garatu ondoren**, hipotesiak planteatu, frogatu eta azkenean, **hobekuntzak proposatzeko**. Zehazki, hauek dira dinamika horiekin erdietsi nahi diren helburuak:

- **Pentsamendu kritikoa** eratzen duten **oinarrizko kontzeptuak** ezagutzea, bereziki, diskriminazio egoerak eta horien arrazoiak antzeman eta aurre egiteko moduak aurkitzeko.
- Proiektuan aurreikusitako **autoezagutza-dinamiketarik abiatuta**, gai izatea sinesteak, ideiak zein aurreiritziak hautemateko, beti ere, horren bidez **botere- eta hegemonia-sistemak identifikatu**, eta sortzen dituzten kalte eta ondorio negatiboek jabetu ahal izateko..
- **Kontzientzia kritikoa** garatzea, JSKJaren balio eta printzipio inspiratzaileak oinarri hartuta, sineste hegemonikoek **erakunde sozial eta juridikoetan** duten **proiektzioa edota isla** antzemateko
- Prestatutako dinamiketan **parte hartzea sustatzea**, taldean ikasteko aukera eta ikaskuntza-komunitatearen bizipena bultzatzeko
- **Kasuen azterketa tekniko**a egitea, **pentsamendu kritikoa** baliatuz. ZERTARAKO? Planteatutako kasuak ebazteko, **gizarte-eraldaketa** eta **justizia soziala** indartuko duten aukerak bilatzea jomugan hartuz.
- **Gaitasuna garatzea**, norberaren gogoetak eta proposamenak **komunikatu, eztabaidatu eta kontrastatzeko**, hala nola, argudiatzeko pentsamendu kritikoa oinarri izanda.
- **Gaitasun berriak** eskuratzea, eta eremu juridiko tradizionalen ohikoak ez diren eta **beste diziplina batzuetan** erabiltzen diren **ezagutza-tresna berriak** ikastea (elkarrizketak esaterako).

■ AMAIERAKO SOSLAIA ■

ZER GAITASUN INDARTU NAHI DIREN

Aurreikusi den proposamenean, **askotariko gaitasunak** landuko dira, orokorrak eta zeharkakoak. Jardueraren nolakotasuna kontuan hartuta, hala nola ikasleria oro har, graduaren azken ikasturteetan dagoela, edo graduondoko ikasketak egiten, oinarritzat hartzen da jada garatu dituztela eta **neurri batean menperatzen dituztela gradu mailako gaitasunak**. Hala ere, ahal den neurrian, **gaitasun guztiak aktibatu eta indartuko dira**.

Hiru arlo daude berariaz, landu nahi direnak. Zehazki gaitasunak baina gehiago, «**izaten jakitearen**» **arloak** (gaitasun existentzialarenak, alegia) lirateke, hertsiki lotuta daudenak lan arloan eta garapen intelektualean garatzen diren prozesu kognitiboekin: **pentsamendu erreflexiboa, sormenezko pentsamendua eta pentsamendu kritikoa**. Hori guztia bideratuko da kontzientzia eta ekintza kritikora, bide batez, lotuta daudenak «**gaitasun etikoa**» deituko genukeenari.

Bide batez, gaitasun etikoa lotuta egongo litzateke **JSKJaren oinarri diren balioekin**: gizaki guztiei aitortzen zaien duintasuna, **gizarte justuago** batekiko konpromisoa, **arrazoibide eta diskurtso kritikoa erabiltzea** botere-sistemak betikotzen dituztenekin, **dibertsitatearekiko eta kultura aniztasunarekiko egiazko balorazio zintzoa**... Pentsamendu mota anitzetan oinarritzen den gaitasun konplexua da.

Lehen mailan, **pentsamendu erreflexiboa** aurkituko genuke. Horren adierazgarri dira, esperientziak, bizipenak, ikuspuntuak, iritziak edo argudioak aktiboki entzun eta kontrastatzea; **antzean beharrekoak dira aurreiritziak, estereotipoak hala nola norberaren sinesteak edo joera nagusiarenak direnak**. Helburua da **jabetzea zeintzuk diren botere hegemoniko delakoaren botere-sistemak**, pertsona eta komunitate batzuei, diskriminazioa, sufrimendua eta desberdinkeria eragiten dietenak

Bigarren mailan, **sormenezko pentsamendua** egongo litzateke. Garrantzitsua da gaur egungo arazoei irtenbide berriak emateko, arazoak konpontzeko, erabakiak hartzeko, sormena eta berrikuntza bideratzeko etab. Pentsamendu honen oinarria **malgutasun mentalean** datza. Pentsamendu erreflexiboak ikuspuntu berrietara irekitzea dakar, eta hori bideratu beharko litzateke **eredu sozial eta juridiko berri bat** irudikatzerara eta hori lortzeko aldaketa-neurriak hartzera.

Azkenik, hirugarren mailan, **pentsamendu kritikoa** egongo litzateke. Pentsamendu kritikoa **oinarrizko gaitasun kognitiboen zerrenda luze eta anitz** batean oinarritzen da. Aipatu diren pentsamendu erreflexibo eta sormenezkoaz gain, beharrezkoak dira pentsamendu logikoa, analitikoa, sistemikoa, praktikoa, kolegiatua etab. Beharrezkoak ditu ere, kontzientzia izatea eta alternatibak bilatzeko gaitasuna, hala nola, **besteen ideiak nahiz propioak zalantzan jarri eta horiei buruz galdetzeko gaitasuna**

Aipatu diren hiru eremu horiek izango dira bereziki aztergai nagusi, GOGOETAGUNEAREN programazioan

PROGRAMAZIOA

ARDATZ ETA LANGAI NAGUSIAK

GOGOETAGUNEA esperientziaren bidez, ikasleek aurre egin ahal izango diote gure sistema politikoan, sozialean eta ekonomikoan txertatutako **botere-sistemek banaka edo taldeka sortzen dituzten bidegabekeriek eragiten dituzten arazoei**. Horretarako, kasuak eta gaiak aurkeztuko zaizkie, eta, oro har, Zuzenbidearen eta Kriminologiaren esparruko lanek eta proposamenek oinarrian izan ohi dituzten printzipio eta balioak sakon berrikusi ahal izango dituzte. Batzuetan, hainbat eremutako **politika publikoen azterketa zorrotza eskatuko dute**. Baita «**bizirik**» **dauden kasuei aurre egitea** edo **Street Law egitea** ere.

Horrelako testuinguruetan behar bezala, eta jarrera konprometituarekin kokatzeko eta modu profesionalean jarduteko, **aldez aurreko prestakuntza behar da**; gogoeta egin behar da gizarteaz eta haren problematikez dugun ikuspegia baldintzatzen duten suposizioei buruz, eta **zenbait mekanismo psikologiko eta emozional aktibatu eta askatu behar dira**, ikasleei Klinika Juridikoan dauden bitartean planteatuko zaizkien **egoeren kokapena eta abordatzea zaildu dezaketenak**, dela Klinika Juridikoan, dela praktiken garapenean zein GrAL edo MALak egiteko orduan. Prozesu hori errazteko, GOGOETAGUNEAk **bost saioko programazioa proposatu du**.

1.

Harrera-saioa. Klinikaren kolektiboa osatzen duten pertsona bakoitzaren autorretratua egiteko saioa izango litzateke, ikuspegi soziologiko batetik, botere-sistema desberdinak izatearen premisatik abiatuta garatzekoa. Saio honetan honelako galderak egingo dira: *Nor gara? Zer profil soziologiko proiektatzen dugu? Gizarte-egituraren zein eremutan kokatzen gaitu profil horrek? Zein pribilegiok hartzen gaituzte? Zein mailatan gara ahulak botere-sistemekiko? Benetan jabetzen al gara horretaz? Zer eskain diezaguke talde-zentzuak?*

2.

Esleitutako kasuei buruzko hausnarketa-saioa. Saio honetan, gogoeta egingo da ikasle bakoitzak bere lan akademikorako edo practicuma egiteko abiapuntu gisa hautatu dituen kasuak lantzeko modua baldintzatu dezaketen zailtasunei eta alborapenei buruz. Saio honetan, honako gai hauek planteatuko dira, besteak beste: *Zer neurritan identifikatzen gara kasuan esku hartzen duten pertsonekin? Zer aurreiritzi eta alborapenek baldintzatu dezakete nola hurbiltzen garen eta nola tratatzen dugun kasua? Gure nortasunaren eta profil akademiko/profesionalaren zein alderdi izan daitezke emankorrak? Nola ikusten dugu kasuarekin dugun harremana, lana zuzenduko duen pertsonarekin, kasua azter dezaten klinikan konfiantza izan duten elkarteekin?*


3.

Oinarrizko kontzeptuen saioa. Saio honetan, giza eskubideen, garapen iraunkorraren eta justizia sozialaren esparruan etikaren eta deontologiaren nozioei eta hurbilketa kritikoari buruz hausnartuko da. Testuinguruaren araberrako zentzua emango zaie aipatu diren ideiekin zuzenean lotutako kontzeptuei, eta ikasleen errealtatearekin lotuko dira hausnarketak, esleitutako kasuen errealtatearen ispiluaren aurrean. *Nola ulertu behar dugu Zuzenbideak edo Kriminologiak gizarte garaikidean duten funtzioa? Zer da legelari ona edo kriminologo ona izatea? Zer iradokitzen digute teoria kritikoaren postulatuek, aurre egin beharreko erronka eta zailtasunei buruz? Zer tresna ideazional eskaintzen dizkigu teoria kritikoak eta horren inguruan dauden garapen akademiko guztiek?*



4.	<p>«Labanesen kuxari» eskainitako saioa. Saio horretan, inplikazio sentikorrek dituzten kasuen tratamenduan txertatutako alderdi metodologikoei buruz hausnartuko da, zenbait prebentzio eta berme behar izan baititzakete, hala badagokio, kritika interesatuen aurrean edo desakreditazioen aurrean nolabaiteko blindajea izan ahal izan dezaten, are gehiago, aztertzen ari diren kasuak ebazteko proposamenei negatiboki eragin diezaieketenean. <i>Nolako bermeak erants dakizkiek gure ikerketa eta azterlanei? Nola ekin testigantzak biltzeari? Zer garrantzi izan dezakete testuinguruari buruzko datuek? Zer protokolo aplikatu behar dira gertakarien kontaktaren baliozkotasuna bermatzeko? Nola eragin diezaieke gure esku-hartzeak biktimei eta biktimarioei? Zer teknika aplikatu behar ditugu bildutako datuen azterketa zorrotza egiteko? Nola planteatu behar ditugu ondorioak eta proposamenak?</i></p>
5.	<p>Kasuen inguruko lan-esperientziari buruzko hausnarketa-saio partekatua. Saio honetan, aurrez aurre izan dugun errealitatera hurbiltzen gaituen edo errealitatek bereizten gaituen distantziaren gaia jorratuko da. <i>Zer sumatu dugu eta nola eragin digu kasuaren errealitatera lehen aldiz hurbiltzeak? Zer sentimendu, gogoeta eta ideia sortu dira kasuan esku hartzen duten pertsonen eragiten dienaren testuinguru eta berezitasunak aztertzen hastean? Zenbaterainoko zilegitasuna dugu pertsona horien errealitatean sakontzeko? Zer eman digu bakarka eta taldean? Zein zentzutan uste dugu aberastu edo hunkitu gaituela esperientziak? Zein puntutan instalatzen gaitu horrek guztiak, lehenengo saioan egindako diagnostikoarekin alderatuta? Zer ondorio atera ditzakegu horren guztiaren etorkizunari begira?</i></p>

Behar bezala dinamizatutako baterako hausnarketa-saioez gain, **jarduera osagarri edo zeharkako batzuk planteatuko dira:** elkarrizketak egiteari buruzko lantegia, lortu ahal izan diren datuen analisi estatistikorako tailerra, komunikazio inklusiboko tailerrak, emaitzak zabaltzeko esperientziak eta proposamenak, etab.



■ METODOLOGIA ■

HARREMANAK ETA IKASKUNTZA BIDERATZEKO DINAMIKAK

Gogoeta egiteko eta pentsamendu-esparru berri bat sortzeko borondatea abiapuntutzat hartuta, banakoarengan eta pertsonarengan eragiteaz gain, aldaketa soziala sustatzeko aukera emango duten hainbat tresna/metodologia planteatuko dira, parte hartzen duten ikasleen kontzientzia kritikoan sakontzeko bide emango dutenak. Berrikuntza-esperientziak botere partekatuko espazioak eta ikasleen eta irakasleen arteko harreman horizontalak probesten ditu, eta elkarrizketa eta etengabeko gogoeta nagusitzea bideratzen du. Horri esker, curriculum-erabakietan protagonismo eta agentzia handiagoko rola bere gain hartzen duten ikasleen ohiko rola birdefinitzen da, eta harremanen hierarkizazioa eta prestakuntza-prozesuetan ohikoak diren botere-desberdintasunak saihestu. Aldiz, elkarrekotasuna eta elkarrekiko osagarritasuna prestakuntza horren ardatz nagusitzat hartzen dira.

UPV/EHuren Ikaskuntza Kooperatibo eta Dinamikoko IKD hezkuntza-ereduarekin bat datorren planteamendu baten alde egiten da. Eredu propioa, kooperatiboa, eleaniztuna eta inklusiboa da, eta ikasleak ikaskuntzaren jabe izatea eta modu integralean, malguan eta gizartearen beharretara egokituta prestatzea bilatzen du. IKD ereduak argi eta garbi laguntzen du unibertsitate-irakaskuntzaren kalitatea hobetzen, eta hala adierazten du 2018-2021 aldirako diseinatutako UPV/EHuren egungo plan estrategikoak, IKD bera, EHUNDU, Iraker, IKDGAZte edo Docentiaz programekin batera, Unibertsitateak dituen indarguneen artean kokatzen baita.

Ereduaren **helburua da ikasleek elkarreragin sendoa izatea irakasleekin, gainerako ikasleekin, beste funtzio batzuk betetzen dituzten fakultateko langileekin eta ingurune sozialarekin, JSKJrekin lankidetzan diharduten elkarteek ordezkatuta.** Pertsona horiek guztiek konpromisoa hartzen dute gure inguruko gizarteak eta kulturak aurre egin beharreko arazoak eta erronkak konpontzeko, iraunkortasunaren eta gizarte-erantzukizunaren irizpideen arabera; ikaskuntza bizi-jarduera eta jarduera iraunkor bihurtzen dute; IKT tresnak erabiltzen dituzte eta beren jarduera eleaniztasunez garatzeko gai dira.

IKDren arabera, ikasleen curriculum-a garatzeko, modu aktiboagoak eta kooperatiboagoak irakatsi eta ikasteko modu berriak sortu behar dira. Horretarako, funtsezkoa da irakasleen prestakuntzak, politika instituzionalek, inguruarekiko harremanak eta ikaslearen rol berriek modu zentrifugoarekin jardutea eta modu ordenatu eta koherentean laguntzea. Ildo horretan, tresna horien azken helburua da unibertsitate-testuinguru inklusiboagoak eta demokratikoagoak garatzea, irakasleen eta ikasleen arteko lankidetzak-aukerak sortzeko eta, ondorioz, etorkizuneko profesionalak «ahots baimendu» gisa kokatzeko, beren prestakuntza-prozesuak hobetzeko eta gizarte-agertokiko subjektu politiko gisa.

Nola egin dezakegu Kliniketan emandako ikaskuntza eta irakaskuntzak eraginkorragoak izatea parte hartzen duten ikasleen kontzientzia kritikoa ahalbidetzeko? GOGOETAGUNEAN aplikagarriak izango liratekeen hainbat teknika eta dinamika planteatzen dira. Hona hemen horietako batzuen deskribapen laburra.

Post-it oharrak:

Jarduera hau ezin hobea da lau eta sei ikasle bitarteko taldeentzat. Klinikako dinamiketan parte hartzen dutenek adierazitako iruzkinekin zenbateraino dauden ados eta zergatik eztabaidatzen laguntzen die. Hortik aurrera, ikasleak animatu daitezke modu orokorragoan hitz egin dezaten ikasi eta hausnartu nahiko luketenari buruz, ikasten eta hausnartzen laguntzen dietela uste duten jarduera eta egoerei buruz eta ez dutenei buruz.

Amaitu gabeko esaldiak

Oso jarduera malgua da, eta mota guztietako talde eta egoerataro egokitu daiteke. Ikasleei eska dakieke erantzunak ozenki esateko, Post-it bidez modu anonimoan idazteko edo beste ikasle batzuekin beren erantzunei buruz hitz egiteko eta talde-adostasuna lortzeko. *Adibidez, ondo sentitzen naiz mintegian...; aurkezpenak hobeto ulertzen ditut...; Nire ustez, irakasleek...; Ez da bidezkoa...; Klinikaren okerreña da...; Klinikaren onena da..., etab.*

Bederatziko diamantearen jarduera

Ikasle-taldeekin osatutako jarduera interaktibo hau ikasleak ikaskuntzari eta garatutako dinamikei buruz dituzten ideiei eta sentimenduei buruz hausnartzera animatzeko modu bat da. Ikasle-taldee 15 txartel ematen zaizkie, beren ikaskuntzarekin eta kontzientzia kritikoarekin lotutako baieztapenekin. 9 txartel aukeratzeko eta diamante moduan jartzeko eskatzen zaie, ordena honi jarraituz: goian garrantzitsuena iruditu zaiena eta behean garrantzi gutxien izan duena.

Jarduera hori egiten duten bitartean, taldeak behatzen dira eta haien eztabaidak jasotzen dira. Diamantea jarduerak eztabaida bizia sortzen du ikasleen artean, eta haien ideiak gainerakoek ez bezalakoak direla konturatzen laguntzen die. Jardueraren ondoren, haien pertzepzioak eta irakasle-taldeak eskain ditzakeen orientabideak bateratzen dira.

Argazki bidezko elizitazioa:

Ikasle talde baten egoera sozialak irudikatzen dituzten argazkiak erakusten dira. Argazkiek diskriminatutako kolektiboak gizartean bizi duen antzeko testuingurua erakustea da helburua. Irudiak kolektiboki ikusetik abiatuta, argazkiei buruzko galdera espezifikoak egiten dira. Adibidez: zure ustez, zer gertatzen zaio pertsona horri? (Argazkian ageri den pertsona bat seinalatzen den bitartean): zure ingurunean antzeko zer egoera antzematen dituzu?; zure ustez, pertsona horiek behar bezala tratatzen ari dira?; egoera horrek zure ingurunean gertatzen denaren antza al du?

Argazkien interpretazioak aztertuta, identifikatu daiteke gizarte-inguruneko zer alderdi edo baldintza egon daitezkeen lotuta pertsona batzuen egoera sozialean eragiten. Horrela, pertsona, kolektibo edo erakunde batzuen portaerak edo jarrerak marjinazio-sentimenduan eragin dezakeela aitortu daiteke

Idazketa biografikoa

Ezagutza berria eraikitzeko, gu geu garenarekin lotu behar dugu, bizi dugunarekiko pentsamendu-harremana ezarriz. Ez bagara norberaren esploraziotik abiatzen (miaketa biografikoa), ezagutza eta esperientzia berriek ia sedimenturik ez uzteko arriskua dugu. Biografia horiek esplizitate eta ulertzea funtsezkoa da profesionalen prestakuntzari aurre egiteko. Prestakuntza horrek esku hartzeko praktika tradizionalak bideratzen dituzten ikaskuntzak sustatzen lagunduko du. Praktika horietan, oro har, unibertsitateko ikasleak sozializatu dira, hausnarketa kritikoko prozesu batetik esperientzia eraldatzailea eragiteko.

Photovoice

Photovoice ikerketa parte-hartzailerako metodologia gisa agertzen da, eta haren balioa gizarte- eta ikerketa-prozesuetan tradizionalki baztertuak izan diren pertsonen ahotsa emateko ahalmenean datza. Prestakuntzaren testuinguruan, hausnarketarako eta hobekuntzarako tresna gisa erabili da. Estrategia horri esker, ikasleek beren ideiak, kezak eta interpretazioak erregistratzen eta bistaratzen dituzte argazkien bidez. Bigarren une batean, argazkiak ezagutza aztertzeko eta eraikitzeko objektu bihurtzen dira, elkarrizketarako, hausnarketarako, kritikarako eta intersubjektibotasunerako estrategien bidez. Irudiek berriz errealitatea ikuskatzen ikasteko aukera ematen dute, bizi ohi denaren eta egiten denaren zentzuari buruz galdetzeko erronkari aurre eginez. Unibertsitateko ikasleek hitza duten espazioak eskaintzea ezinbestekoa da, baina ez nahikoa, argazkigintza erabiltze hutsak ez baititu parte-hartzaileak ahalduz. Estrategia honen balio nagusia elkarrizketarako, negoziatorako eta interpretatorako eskaintzen dituen aukeretan datza, betiere behar diren espazioak eskaintzen badira.

Egunerokoak.

lkerketa- eta hausnarketa-helburu horietarako, egunkariak aukera epistemikoak ematen dituzte, idazketa pentsamenduaren, subjektibotasunen eta errepresentazioaren integrazio-prozesu etengabea baita. Idazketa erregistrotik askoz haratago doa, ideiak eraikitzea eta gorpuztutako esperientzia adieraztea ahalbidetuz. Esperimentatutako edo egiaztatutako diskriminazio-egoerak aztertzeke balio du, esperientzia berriz ebaluatzeke; informazio berriak dagoeneko ezagutzen denarekin erlazionatzeko; teoria praktikarekin konektatzeko; beren burua ekintzaren berehalakotasunetik kanpo birpentsatzeko; ekintzan dagoen hausnarketa atzemateko eta inplizituei buruz kontzienteki hausnartzeko bitarteko bat eskaintzeko.

Diseinatutako programazioa eta aurreikusitako jarduerak produktiboak izan daitezzen, oso garrantzitsuada **harreman parte-hartzaile, horizontal eta demokratikoa** sustatuko duengiroa eta dinamika egotea. Horretarako, lehen aipatutako ekimenei hausnarketa- eta konpromiso-maila bat gehitu behar zaie. Maila horretan garatuko lirateke ikaskuntza-komunitatea osatzen duten pertsonen arteko harremanak. Pertsona horiek harreman hierarkikoak dituzte konfiantza-esparru horretatik kanpo. Horrek eragina du **ikasleen eta irakasleen arteko harremanean, ikasleen eta profesionalen eta irakasleen eta profesionalen arteko harremanetan, eta proiektuan inplikaturik dauden beste kolektibo batzuetako pertsonetako harremanetan.**

Ezin da alde batera utzi **ikasleak hertsatuta senti daitezke**ela pertsona eskarmentudunagoekin eta adituekin hausnarketak partekatzerak gonbidatzen dituztenean, eta, kasu batzuetan, gainera, beren GRAL edo MAL-ak zuzentzeko edo ebaluatzeke ardura dutenean, edo ikasle horien irakasleak direnean ohiko ikasgaietan. Bestalde, **irakasleen artean** mendekotasun- eta hierarkia-harremanak egon daitezke, eta, horien ondorioz, **pertsona batzuek parte-hartze txikiagoa izan dezakete, eta beste batzuek protagonismo handiagoa**. Horri guztiari **genero-joera duten komunikazio-errutinak** gehituko litzaizkioke, sistematikoki mugatzen baitute emakumeek komunikazio publikoko jardueretan parte hartzea.

Horregatik, GOGOETAGUNEAK proposatu du gai horiei buruzko lan sistematiko batekin hastea **ikasleen harrera-saioan**. Harrera-saio hori **elkarrekiko hurbilketa- eta aintzatespen-saio** bihurtuko litzateke, proiektuan parte hartzen duten kolektiboen artean dauden ezberdintasunak onartuz, eta horietako bakoitzaren barruan, **ikasleentzako konfiantzazko eta segurtasunezko ingurune bat** sortzeari arreta berezia eskainiz, bereziki, **inklusibotasunaren ikuspegitik** beren ekimena eta parte-hartzea berez eragozten duten faktoreek eragin negatiboa izan dezaketean ikasleentzat.

Lan-metodologiaren beste alderdi bat saioak eta jarduerak antolatzeari dagokio. **Parte-hartzea errazteko**, garrantzitsua da pertsona guztiek jardueren testuingurua eta helburuak ezagutzea, abian jarri aurretik. Dinamiken garapena bizkortuko duten **tresnak eta materialak** ere izan beharko lituzkete. Azkenik, garrantzitsua da gogoeta gelako saioan bertan ez amaitzea. Horregatik, saio guztiak **hiru fasetan** egitea proposatzen da: saioaren aurretik egin beharreko aurre-ataza bat; saioan zehar gidatutako jarduera bat, eta ondorengo hausnarketa edo ataza bat, saioaren laburpen gisa.

Azkenik, oso garrantzitsutzat jotzen da **parte-hartzaileen artean harreman informal eta lasaia izateko guneak eta aukerak** sortzea: arratsalde erdian kafea hartzeko ordua, **ekitaldi akademiko eta sozialetara taldean joatea**, harreman sozialeko egoera batzuk partekatzea, hala nola, kafetegian edo fakultateko jantokian otorduak egitea, etab. Horrekin, **pertsonen arteko hurbilketa naturalagoa eta organikoagoa eta elkar ulertze sakonagoa errazten da**, eta horrek guztiak jarduera akademiko eta **aberasgarriagoa** ekarriko du.

■ EBALUAZIOA ■

IKASKUNTZA-PROZESUEN ETA EMAITZEN BALIOESPENA

GOGOETAGUNEAN **ebaluazioa** ez da berezko helburu gisa hartzen, **komunikaziorako, hobekuntzarako eta ondorengo harremanetarako zubi gisa baizik**. Beste modu batera esanda, ebaluazioa JSKJak eskaintzen duen marko zabalean helburu esanguratsuak lortzea errazten duten baldintzak sortzeko tresna bat gehiago izango litzateke. Beraz, ebaluazioak proiektuaren izpirituarekin eta helburuekin bat etorri behar du, eta modu organiko eta naturalean txertatu behar prozesu osoan.

- **Hasierako ebaluazioa** harrera-saioan egingo da. Saio horretan, elkarren arteko lehen hurbilketa ahalbidetuko duten dinamikak garatuko dira, pertsona bakoitzaren aurreikuspenak eta beharrak adieraz ahal izan ditzan, bereziki ikasleek,. Horren bidez, «zero puntua» dei genezakeena sortzea ahalbidetuko da, hau da, GOGOETAGUNEAN proposatuko den hausnarketa-prozesua abiarazteko baldintzak sortzea bilatuko da. Ildo horretatik, zuzeneko edo zeharkako agintea duten pertsonen eta horien hierarkia maila berean sentitzen ez direnen arteko hurbiltzea erraztearren, hasierako jarduera kanpoko pertsona baten zuzendaritzapean egingo da. Horrela, parte-hartzaile guztiak maila berean kokatuko dira haien estatusa eta parte-hartze mota gorabehera.
- **Proiektuak aurrera egin ahala, jarraipen saio bat egingo da** ikasturtearen erdian. Saio horretan, ikaskideen harrera-saioaren antzeko jarduerak garatuko dira. Ikasleek Klinikari denbora, lana, praktikak eta bestelako jarduerak nola hartzen dituzten jakitea izango da helburua. Era berean, parte hartzen duten gainerako taldeei emango zaie ahotsa, ez bakarrik kontraste gisa, baizik eta parte hartzen duten pertsona guztiak inplikatzeko eta eragiten dituen prozesua garatzen ari delako lekukotza gisa. Saio horretan jasotako iradokizuna Zuzendaritza Batzordeari helaraziko zaizkio, hala dagokionean, ikasturte amaiera baino lehen dinamikak eta harremanak bideratzeko onuragarriak izan daitezkeen aldaketak proposa ditzan.
- **Amaierako ebaluazioak**, azkenik, **bi prozedura** hartuko ditu barne:
 - **Banako ebaluazioa**: alde batetik, elkarrizketa erdi-egituratua egingo da ikasle bakoitzarekin, **lehentasunezko zat jotzen dituen berrikuspen elementuak identifikatzeko**, beste ikasle eta kideek haren ikuspegian sor ditzaketen baldintzapenen eragina leuntzeko, eta **amaierako taldeko saioa prestatzeko**.
 - **Taldeko ebaluazioa**: Azken jarduera horren helburua bikoitza izango da. Alde batetik, Klinikari osatzen duten **kide eta talde guztiak biltzeko** balio du, eta operatiboki, hurrengo ikasturterako Klinikari arlo zehatzak eta baita, halaber, **hobekuntza ekimenak kolektiboki adosteko** ere.

Azkenik, ebaluazio jarraituaren osagarri gisa, **inkestaren protokoloa aplikatuko da (online eta offline)**. Inkesta horiek ikastegiko teknikarien eta JSKJko administrazio idazkaritzaren lankidetzarekin bideratuko dira.

